

EUSKARAREN GIZARTE-ERABILERA, KATALANAREN ARGITAN

1. Euskararen erabilera, ezinbesteko kezka

Sarri-sarri eztabaidatzen dira gure artean euskarari buruzko autu-mautuak. Batzuentzat maldan behera doa euskara, ezin cutsizko beherakada nabarmenean. Bestetzentzat, ozta-ozta dabil, aurrera-atzera eta balantzaka, bizimoduaren orekari doi-doi lotua. Bazterretan badira euskararen aurrerakada gehiegizkoa ikusten dutenak ere, euskal hizkuntzari eskaintzen zaizkion abagune berriak igarri bezain laster.

Ez naiz ni lerro laburregietan euskararen nondik norakoak bilduko dituen. Bai, oster, orrialde hauen bitartez KARMEL aldizkariaren irakurleari osterantzeko argibideak luzatzen saiatuko dena, gure inguruan zer egiten den jakin dezan irakurle horrek.

Esan gabe doa, bestalde, irakurle ohartuak berehala atzemango duela, behinolako esamoldearen premia, alegia, luzamendurik gabe eskatuko didala *mutatis mutandi* jokatzeari, euskararen eta eite bertsuko hizkuntzen egoerek, antzekoak izan arren, sakoneko desberdintasunak eta diferentziak dituztelako.

Bego. Jakin beza irakurleak gogo horrekin jokatuko dudala neronek ere, eta egin asmo ditudan hauek ez datozela, bakar-bakarrik, hizkuntza-politikaren esparrutik, esparru hori gobernu batek hizkuntzaren babeserako egin dezakeena esanahirik hertsienean ulertuta. Aitzitik, nire oraingo hau bestetik dator, hain zuzen ere, aspalditik gizartean erroturik dauden tankera berezko erakundeetatik, horiexek ere ikuspegi egokia ematen baitute, gobernuen politika-boladen gainetik, arnas sakoneko ibilbidea plazaratzeko eta erakusteko. Horra hor abagune aproposa, hizkuntzaren aldetik eskertzekoa dena, eta, hurrean ere, proiektio zabala dakarrena.

Guztion ezagupidekoa da aspaldiko *Real Academia Española*, gaztelaniaren ardura duena. Ezezagunagoak, berriz, bestelako hizkuntzen gainean eskumenak dituztenak, hala nola, *Institut d'Estudis Catalans* (aurrerantzean, IEC), *Real Academia Galega*, *Euskaltzaindia* eta gainerakoak.

Ari naiz, ari ere, Espainiako estatuan bizi diren eremu urriko hizkuntzen ardura eta arrangura duten akademiez. Askoren ustez, eginkizun soil-soilak dituzte horiek, bakoitzak bere hizkuntza-esparruan, mintzairen estandarizazio-prozesua eta xehetasunak gidatzeko. Aurrekoari ezer ere kendu gabe, badituzte horiek bestelako neke-lanak, hizkuntza horien gizarte-sustartzeari dagokionez.

Labur esanda, sortzez eta egitez, badira katalan, gailego, baske eta euskara ardurapean duten erakundeak. Horien zereginetan, argi-argi, politikaren alderdiek adierazten duten egunerokotasun astun horretatik landa jokatzeari, halako gogoeta berezi eta bereizia egiteko, gizartean euren ardurapeko hizkuntzak balio, ikur eta komunikabide izan daitezen.

Horiek zer egin eta nondik bideratzen dituzten euren eginalak zeharo ezagunak dira gure artean, nik neuk hemen berriro errepika ditzadan.

Aldian-aldian, alabaina, ohitura dute horiek euren mezuak zabaltzea, gizarteak ezagut dezan euren iritzia, hizkuntza bakoitzari dagokionez. Hala egin du iaz IEC delakoak, katalan hizkuntzaren gizarte-erabileraz kezkatuta. Horiek datoz oraingoan euskaraturik, halakoetan —katalanaren eta euskararen arteko desberdintasunak gorabehera— euskaldunok ere zer ikasi eta zer hausnartu badugulakoan.

2. IEC-ren *Katalanaren gizarte-erabilera*: abiapuntuak

IEC-k sortutako agiria Bartzelonan onetsi da, 2004. urteko urriaren hogeita batean. Bost zati ditu agiriak, eta bost zatiotan ari da IEC erakundea katalan hizkuntzaren inguruan, XX. mendetik XXI. mendera doan bidean katalan hizkuntzarentzat zein diren erronkarik bistarakoenak azaldu guran.

Gogora bedi IEC erakundea mintzo dela, hots, katalan hizkuntzaren arta eta babesa duen erakundea. Haren barruko *Secció Filològica* (nolabait esatearren, *Euskaltzaindiaren* parekoa litzatekeena) ez ezik, bestelako atalak ere bitartekoak izan dira agiri honetan, erakunde osoa baita agiriaren egile.

Bost zation tituluak ere nahiko esanguratsuak dira katalanaren diagnostikoa egiteko. Hortaz, haien lerroz lerroko edukia honetara dator:

a) Katalanaren erabilera XX. mendean

Zati honetan nabarmentzen dira, bateko, katalan hizkuntzaren betiko munduak izan duen atzerakada izugarria, eta, besteko, egunotako gizarteak ekarri dituen komunikazio-tresna berrien areagotzea. Hizkuntza bera ere, horren hartzaile. Bide beretik gogoratu egiten da 1936-1975. urte bitartean katalanaren egoera latza; eta, azkenean, egoera horri aurre egiteko ahaleginak ere zerrendaratzen dira, geroari buruz zer etor daitekeen laburbilduz. Gazteriaren lerrakera ere kezka -iturburua da IEC-rentzat, gazteek —hala idazten da— katalan hizkuntzaren balio

erreferentzial eta sinbolikoa galdu baitute. Berebat, ezin bazterrean utzi komunikabideen indarrez ageriko den kultura nagusia katalanaz besteko hizkuntzetan adierazten dela.

b) Gabeziak eta erronkak

Bigarren zati honek sakon eta arloz arlo aztertzen ditu katalan hizkuntzaren gabeziak gizartearen barruan. Mundu sozio-ekonomikoa edo justizia igarri-igarrian datoz lehendabizi; horren hurrengo, katalan hizkuntzaren ofizialtasunak dituen hutsuneak eta ezinak azaltzen dira, ondorio latz batera garamatzala horrek, hau da, ofizialtasun hori baldintzapekoa dela, maiz gertatzen baitira horretarako oztopoak, *de facto* ofizialtasun horren eragingarritasuna beheratzen eta deuseztatzen dutenak. Horretan, zer esanik ez, erantzukizunik pisuzkoena agintari politikoei egozten zaie, estatu zentralekoiei nahiz autonomia-erkidegokoei.

Badira, bestalde, IEC-rentzat jokaera arriskugarriak mundu horretan. Izan ere, beren beregi aipatzen da horren barruan hizkuntza-aniztasunaren aurkako ideiak, hain zuzen, gaztelaniaz besteko hizkuntzen kalterako datozenak.

c) Hizkuntzaren aldaketa, iraupenerako kaltea

IEC-k badu, lehentasunen artean, itxurari baino, katalan hizkuntzaren barne-muinari dagokiona. *Language shift* esan zaio horri ingelesez, eta *hizkuntza-aldaketa* legoke euskaraz. Batez beste, horretara egokitu behar katalan hiztuna, katalan hizkuntza ez dakitenekin ari denean katalanez besteko hizkuntzetara jotzen baitu, usu gaztelaniazko adierazpideetara. Kanpotik etorritakoak ugari izan Catalunyan, eta horrek dakarrenak, besteak beste, ondamendira eraman dezake katalana, IEC-ren iritziz. Buruen-buruenik ere, lehen esan bezala, horrexek behar du, herritarren ekina ez ezik, gobernuena ere bai, hizkuntzaren aldaketa geldiaraz dadin.

- d) Bidegurutze erabakigarria: katalanarentzako arrisku eta aukerak

IEC-k argi-ilunak ikusten ditu katalan hizkuntzaren etorkizunean. Lehen kolpean badirudi katalanaren gizarte-erabilera gibelera doala. Hasian hasi, ez bide da halakoa horren astun, hizkuntza-leialtasuna gorde eta areagotu egin baita toki batzuetan, kasurako, Bartzelonaren hiri-eremuan. Ber-bertatik dator bestelako kezka-iturria, egun arras zabaldua: nondik bideratu gero eta barnekoago dugun mundializazioa? Ingelesaren aldamenean, badira beste hizkuntza batzuk, euren erkidegoen indarraren arabera bizitzeko tenorea izan dezaketenak. Hainbatez, IEC-k eskatzen du Europa mailan ere katalanari berez dagokion lekua aitortzea. Testuaren azken hitzak argigarriak dira oso: *katalan hizkuntzak mundializazio-prozesuari aurre egin behar dio oinarri instituzional sendorik gabe, bere biztunak kontinentearen beste lurraldeetako hizkuntza-aniztasuna gordetzen laguntzen duten bitartean.*

3. IEC-ren Katalanaren gizarte-erabilera : proposamenak

Testuaren bosgarren zatia osatzen dute azken hiru orrialdeek. Bertan dira, xehe-xehe garatuta, IEC-k egoera horren aurrean egiten dituen proposamenak, testu adierazgarri bezain adierazkor batean mamituak eta biribilduak. Bada hor lerro arteko doinua eta "musika"; horren notak eta joan-etorriak arrotz baino, etxeko eta barru-barrukoak zaizkigula euskaldunoi.

Euskaratzearen erantzukizuna nirca da, eta, jakina, jatorrizko testua irakurri nahi izanez gero, jo beza irakurleak honako argitalpenetara: INSTITUT D'ESTUDIS CATALANS (2004): *Declaracions institucionals sobre la llengua catalana*. Publicacions de la Presidència 22/2004. Bartzelona, 45-59 orr. Edota Internet sarera, IEC-k duen web-orrira: [www.iec.es _llengua_Declaracions institucionals](http://www.iec.es/_llengua_Declaracions_institucionals).

Hona euskarazko bertsioa:

“Egoera horren aurrean, eta hizkuntza-politika eta -planifikazioa herriaren kudeaketan ezinbesteko diren neurrian, *Institut d'Estudis Catalans* deiturikoak gonbita luzatzen die bizitza politiko, sozial, ekonomiko, kultural eta zientifikoaren jardulei, sakon aztertzeko katalanaren erabilerari buruz gure gizartean diren erronka berriak, eta, horren ondorioz, horiei erantzun egokia emateko neurriak hartzeko.

Hartara,

a) IEC-k herrialde osoko erakunde publikoei galdatzen die katalanaren biziraupenak dituen erronken larritasunaz jakitun izan daitezen. Era berean, euren kezka ager, eta hizkuntza berreskuratzeko eta bultzatzeko lanetan eurei dagokien aitzindaritza har dezaten, bakoitzak bere eremuan. Are zehatzago, IEC-k arduradun politikoei eskatzen die beharrezko neurriak hartzea, hizkuntzaren ziurtasuna oso-osorik berma dadin, katalan hizkuntza-komunitateak iraun ahal dezan bere lurralde osoan.

b) IEC-k gizarte zibilaren erakunde guztiei gogoratzen die hizkuntzaren erabilera sustatzeko duten eginbehar zibikoa, eta hark bultzada berria izan dezan premia, horixe baita hura ere integrazio kolektiboaren tresna izateko bide bakarra.

c) IEC-k herritarrei luzatzen die gonbita, arazo horren zabalakundearen eta sustraien jakitun izan daitezen; bizitza publikoan nahiz pribatuan gure hizkuntzaren autoestima eta gizarte-begirunea bultzatzeko adostasuna berrindar dezaten; aurreakuntza horren egile izan daitezen, eta herriaren erakundeei halakoa eska diezaieten. Are zehatzago, IEC-k agerian jarri nahi du katalanaren biziiraupenerako zer-nolako arriskuak dakartzan hizkuntzaren aldaketak, hori ohiko gertatzen denean. Argi dago bakoitzaren ahalegina dela, jatorrizko hizkuntza edozein izanda ere, arrisku hori gainditzea.

d) IEC-k azpimarratu egiten du unibertsitateek katalanaren defentsarako duten berezko erantzukizuna, dela ikasgeletan erabiltzeko kontuari buruz, dela haren presentziari buruz, sail

desberdinetan sortzen diren argitalpenetan. Guztiz kezkarria da katalanez egiten diren argitalpenak aintzakotzat ez hartzea curriculum profesionalak balioestean.

e) IEC-k gogoratzen du gure ordezkari politikoen betebeharrak dela kultura eta hizkuntza munduan zehar zabaltzea. IEC-k zinez uste du kanpo-zabalkundearen aukeretan, eta agintariei galdatzen die aurrekontu esanguratsua ezartzeko, haien sustapen idatzia eta ikus-entzunezkoa egiteko, nahiz kultura zientifikoaren esparruetan, nahiz gizarte-arlokoenetan.

f) IEC-k bertako ordezkari politikoei gogoratzen die Espainiako estatuaren gobernuari galdatu behar diotela Espainiako lurralde osoan hizkuntzak babesteko konstituzio-agindua betezea. Orobat, IEC-k katalanaren batasunari buruz duen irizpidea, hain zuzen ere, nazioarteko erromanistikak eta *Real Academia Española*k duten berbera.

g) IEC-k agintari politikoei galdatzen die katalana ezagutzeko lege-tresna eragingarriak ezar daitezen, katalan hizkuntza duten herrialdeetan, jarduneko funtzionario guztientzat.

h) IEC-k profesional guztiei galdatzen die euren ogibidean sortzen dituzten gutuneria, txosten eta idatzietan katalana erabiltzea, batez ere, medikuntzan eta jurisprudentzian, horietan baita da erabakigarri katalanaren presentzia.

i) Halaber, IEC-k enpresa guztiei galdatzen die euren jardun guztietan ekinez eta lehentasunez erakuts dezaten katalan hizkuntzaren ahozko zein idatzizko erabilerari eusteko jarrera bizia.

j) IEC-k dei egiten die katalana bizi den estatu guztien erakunde publikoei, hizkuntza-leialtasuna agertzeko baldintzak erraz ditzaten. Leialtasun horren oinarri izan behar dira halako irizpideok: hizkuntza-aniztasunaren iraunkortasuna, horrekiko begirunea eta aitortza, elkarrekiko aberastasunaren barruan.

k) IEC-k uste du katalan hizkuntzaren lurraldeetako herritarren eta horien estatu zentralen laguntza ezinbestekoa bada ere, katalan hizkuntzaren izate *normal*ari ezin euts dakiokeela,

bakar-bakarrik, beraren hiltunen borondate militante nahiz estatuko gobernuen aldaketa ideologiko-politikoaekin. Behar-beharrezkoa da, aitzitik, katalan mintzodun erkidegoen gobernu autonomikoen engaiamendua.

1) IEC-k galdatzen die katalan hizkuntzaren lurraldeetako administrazioei legerian isla dezaten euren hizkuntza plangintza, eta, horren ondorioz, lurralde horietatik edozeinetan bizi ahal izateko katalan hizkuntzaren ezagutzea eta gizarte-erabilera ezinbestekoa izateko baldintzak jar ditzaten.”

4. Epilogo euskalduna

Aurreko testuak eskaini dituen diagnostikoa eta proposamenak eztabaidapean jarri dira Catalunyan ere, hango komunikabideetan argi ikus daitekeenez. Besteak beste, *Serra d'or* aldizkariak antolaturiko mahai-ingurua, aurtengo apirilaren 7an (ikus 547-548. zenbakia, 41-51. orr.). Salvador Giner soziologoa eta adierazpenaren bultzatzaile nagusiarekin batera, aditu esanguratsu batzuk aritu dira horretan, euren iritzia bertara ekarri.

Labur azalduta, honako hauek:

FRANCESC VALLVERDU: Egia da agiriak oihartzun zabala izan duela komunikabideetan, kritikak barne, eta horiek aberasgarriak ere izan direla. Alderdi horretatik ondorio positiboak eka-
rri ditu. Aldi berean, alabaina, agiriaren zatirik esaguratsuenak, azken hiru orrialdeek barneratzen dutena _bertan proposatzen zela ekimen-multzo bat, normalizazio-bidean aurreratzeko_, doi-doi izan da iradokizunen helburua (*És cert que el document tingué un ampliò ressò mediàtic, amb crítiques incloses, en general enriquidores, i això caldria comptar-ho com a efecte positiu. Però al mateix temps, la part més interessant del document, las seves tres pàgines finals _on es proposaven un seguit d'actuacions per avançar en la normalització_, a penes mereixeren cap comentari.*)

ALBERT BRANCHADELL: Labur-zurrean: Katalanaren egoera artezki azaldu nahi badugu, aintzakotzat hartu behar ditugu bere hizkuntza-eremuan bizi dituen egoera desberdinak; hartara, gure jakin-minekoa bada Catalunya, esan beharko dugu horren egoera (hizkuntza-eremuaren beste lurralde batzuen ez bezalaxe) ez dela hizkuntza-ordezkapena dakarten benetako prozesuena (*Resumint: si volem descriure acuradament la situació del català hem de ser més sensibles a les diferents realitats que viu en els diferents territoris del seu àmbit lingüístic; i si el territori que ens interessa és Catalunya, hem de convenir que la situació (a diferència d'altres territoris de l'àmbit lingüístic) no és la que caracteritza els veritables processos de substitució lingüística.*)

ISIDOR MARI: A aukerak gogoan du katalanarentzat eta beste hizkuntza guztientzat iraunkortasuneko etorkizuna. B aukerak, aldiz, erabateko desarauketa dakar, harako neodarwinismoa, hizkuntza indartsuenak oztoporik gabe nagusitzen direla — hau da, oihanaren legea, askatasunik zabalenaren itxurapean emana— (*L'opció A aspira a ordenar un futur de sistenibilitat per al català i per a totes les llengües. L'opció B és la desregulació absoluta, una espècie de neodarwinisme en què s'imposin sense traves les llengües més potents _és a dir, la llei de la selva revestida de l'aparença de llibertat absoluta.*)

MIGUEL-ANGEL PRADILLA: Aurreko gogoetak argi erakusten dute katalan hizkuntzaren esparruko lurralde bakoitzak behar duen azterketa hereizia. Izan ere, balorazio orokorrek islatu behar dute gure hizkuntza-komunitatearen aniztasun soziolinguistikoa (*Las reflexions apuntades mostren clarament l'especialitat analítica amb què cada territori de l'àmbit lingüístic catalann ha de ser avaluat. Las valoracions globals han de reflectir, doncs, la diversitat sociolingüística de la nostra comunitat de parla.*)

Eztabaidak eztabaida, bada IEC-ren testuan, arestian esan legez, zer hausnartu, zer ikasi eta zer egokitu euskararen alde-

tik. Oraingoz, dena den, helmuga ez da, baten batek pentsa dezakeenez, besterik gabe eta hitzez hitz, gauza bera aldarrikatzea euskararen eremuan. Bai, ordea, gure buruari gonbita egitea, askotan gure baitan izaten diren aurreiritzi frankoren gainean jakin dezagun euskararena bermatzen eta sustatzen eta euskararen plangintzan arinkeriak ostendu eta ilundu ez diezaigun egiteke eta eginkizun duguna.

Badira gure artean ere, kezkaburu bertsuak (euskararen erabilera, lurralde eta gobernu desberdinen gorabeherak, hizkuntzaren erabilera hainbat arlotan, kanpoan egin beharreko lana...). Zernahi gisaz, jarraibide egokiak eta eztabaidatzeko modukoak izan daitezke aurrekoak, gure barruko gogoeta-prozesuari bidea zabaldu beharko lioketenak.

Halakoak praktikan jartzeko baliabideak asmatu beharko ditugu, bakoitza bere egoera soziolinguistikotik abiatuta, jakinik, hori bai, euskara bera dela gure xedea eta euskaldun guztioek batzen gaituena, muga, egoera soziopolitikoa eta traba guztien gainetik.

Egingo ote?

Andres Urrutia